

IKT sektorea Euskal AEn bai enpleguan bai balio erantsian hazi zen 2016an

IKT sektoreko enpresen %68,5 merkataritza elektronikoan aritu ziren; sektore guztiak aintzat harturik, %26,0

2016an Euskal AEn hazi egin ziren bai enpresa-kopurua bai enplegu okupatua Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektorean (IKT) %3,6 (90 enpresa gehiago) eta %1,3 (279 okupatu gehiago), hurrenez hurren, Eustaten datuen arabera. Zehazki, 2.601 enpresa zenbatu ziren eta 21.622 lanpostu sektorean, eta enpresako batez besteko tamaina 8,3 pertsonakoa izan zen. Negozio-zifra %,5,4 hazi zen, eta balio erantsia %,2,7.

Datu horiek izanik, IKT sektorean Euskal AEko ekonomiako okupatuen %,2,1 aritu ziren, eta balio erantsiaren guztizkoaren %,2,2, 1.546,8 milioi, eta negozio-zifra 3.563,9 milioi eurokoa izan zen. 2015aren aldean, IKT sektoreak zeukan pisua mantendu zuen hala enpleguan nola balio erantsian.

1. taula: IKT sektorearen magnitude nagusiak, lurralde-eremuaren eta jarduera-sektorearen arabera. 2016

	Enpresa kopurua	Landun kopurua (1)	Negozio kopurua (2)	Balio erantsia (2)
IKT sektorea guztira	2.601	21.622	3.563,9	1.546,8
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	318	2.377	388,3	144,0
Bizkaia	1.515	12.591	2.245,8	1.011,0
Gipuzkoa	740	6.654	929,8	391,9
TIC sektorea				
Industria	68	4.142	498,0	179,8
Zerbitzuak	2.533	17.480	3.065,9	1.367,1

(1) Lanpostuak

(2) Milioika eurotan


Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

IKT sektorean, gainerakoetan baino I+G+b jarduera gehiago

IKT sektorean enpresen %,5,8k egiten dute I+Gko jarduerarik, portzentaje bat altuagoa dena sektoreen guztizkoarekiko, %,0,9, baina puntu bat eta hamarren bat txikiagoa I+Gko jarduerarik 2015ean egin zuten enpresen portzentajearen aldean. Gainera, IKT sektoreak, Euskal AEko enpresa guztien %,1,7 bakarrik dena, biltzen ditu I+G egiten dutenen %,11,5 eta exekutatzen du, 67 milioi euroekin, sektore enpresarialaren I+G barne-gastu osoaren %,6,9, nahiz ete bere pisua gastuaren guztizkoan den hiru hamarren txikiagoa 2015aren aldean.

Sektorean 2016an 1.230 langile aritu ziren I+Gn, dedikazio osoko baliokidetzan (sektore enpresarial guztien %9,7; sektore guztien %6,9); 281 langile, %22,8, emakumezkoak izan ziren.

1. grafikoa: I+G+b IKT sektoreko enpresetan eta sektore guztietako enpresetan. 2016. (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

Berrikuntzan, I+Gn bezala, alde esanguratsuak daude sektoreen guztirakoaren eta IKTren artean. Halatan, 2016an, IKT sektoreko establezimenduen %33,2k berrikuntzako jarduerak egin zituzten; sektore guztietan, aldiz, %11,4k. Enpresaren tamaina kontuan harturik, 10 langile eta gehiagokoetan, lehen kasuan %56,0k egin zituzten; sektore guztietan, ordea, %27,9k.

Berrikuntzan IKT establezimenduek 230,8 milioi euro gastatu zituzten, enpresa guztienaren %9,1. Gastu horretatik, 167,4 milioi 10 langile eta gehiagoko establezimenduek eginak dira, tamaina horretako enpresen gastu guztiaren %7,9.

Begiratzen badugu zer den berrikuntzako eta I+G gastua negozio-zifraren gainean (barne-berrikuntzako eta barne I+G intentsitate-ratioak), begi bistakoa da, baita ere, IKT sektorean baliabide gehiago joan zirela I+G+bra gainerako sektoreetan baino. Berrikuntzaren intentsitatea 4,3 da sektorean eta 1,6 guztirakoan. Barne I+Gn ratioa 1,8 da IKTn eta 0,8 guztirakoan.

2. taula: IKT sektoreko barne Berrikuntzako eta I+Gko intentsitatea, lurralde-arlo, jarduera sektore eta enplegu-geruzen arabera (%). 2016

	Guztira		10 langile eta gehiago	
	Berrikuntza intentsitatea	Barruko I+Garen garrantzia (2)	Berrikuntza intentsitatea (1)	Barruko I+Garen garrantzia (2)
Sektoreak guztira	1,57	0,80	2,04	1,15
IKT sektorea guztira	4,33	1,84	3,77	1,83
Lurralde historikoa				
Araba/Álava	1,31	0,64	2,24	1,11
Bizkaia	3,70	1,27	3,42	1,42
Gipuzkoa	8,29	4,49	5,76	3,70
TIC sektorea				
Industria	5,28	3,90	5,41	4,00
Serbitzuak	4,21	1,59	3,54	1,52

(1) Berrikuntzaren garrantzia: (berrikuntzako gastuak/negozioen kopurua)*100


(2) Barruko I+Garen garrantzia: (barruko I+G gastuak/negozioen kopurua)*100

Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

Merkataritza elektronikoa IKTn zabalduagoa dago sektoreen guztizkoan baino, eta apur bat hazi da 2015aren aldean

IKT teknologien erabilera oso zabaldua dago sektore honetako enpresen artean, baina merkataritza elektronikoaren erabilerak, gainerako sektoreetakoaren gainetik badago ere, ezarpen handirik gabe dirau, batez ere salmenten aldetik. Bide horren bitartez erosketak egin zituzten establezimenduak %68,1 izan ziren IKT sektorean, eta salmentak egin zituztenak %15,2; sektoreen guztizkoan, %24,0 eta %6,5, hurrenez hurren. Horrek dakar merkataritza elektronikoa izatea IKT establezimenduen %68,5etan, portzentajezko bi hamarren gehiago 2015ean baino; sektoreen guztizkoan, %26,0tan.

2. grafikoa: IKT teknologien erabilera 2016an. (%)




Iturria: Eustat. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorea-IKT

Bestalde, IKT sektoreak ondasunen kanpo-merkataritzan duen eragina ez da oso esanguratsua. Esportazioak 296,1 milioi euro izan ziren, eta guztirakoa 21.615,9 milioi; inportazioak 461,6 milioi izan ziren, eta guztirakoa 15.604,1 milioi. Hori %1,4 eta %3,0 da, hurrenez hurren.

Esportazioetan nabarmentzen dira produktu hauek: *Osagai elektronikoak* (%40,8) eta *IKT beste produktuak* (%34,5). Inportazioetan, hauek: *IKT beste produktuak* (%34,6), *Telekomunikazio-ekipoak* (%23,3) eta *Osagai elektronikoak* (%21,7).

3. grafikoa: 10 langile eta gehiagoko enpresen alderaketa Euskal AEn eta Espainian (%). 2016



Iturria: Eustat eta EIN

Euskal AEko IKT enpresak berritzaileagoak dira Espainia osokoen aldean, baina merkataritza elektronikoan gutxiago dihardute

Azkenik, baldin konparatzen baditugu IKT sektorearen datuak Euskal AEn eta Espainian bere osotasunean 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen kasuan, bada alde zenbait adierazleetan. Euskal AEn enpresa berritzaileen portzentajea, berrikuntza-intentsitatea, webguneak eta banda zabala handiagoak dira; aldiz, erosketa eta salmenta elektronikoak egiten dituzten enpresen portzentajeak handiagoak dira Espainian bere osotasunean Erkidegoan baino.

Ohar metodologikoa:

IKT sektorea osatzen dute manufaktura- eta zerbitzuetako sektoreek zeinen jardura nagusia lotuta dagoen Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien garapen, ekoizpen, merkaturatze eta erabilera intentsiboarekin. [Web Eustat. Ficha metodológica: Sector TIC](#)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62